

04- LAN EREMUETAKO BIZI-BALDINTZAK

Langileen bizi-baldintza gogorak egiaztatuta daude, ez dago horren inguruan inolako zalantzarik. Hala eta guztiz ere, oso zaila da sufrimendu hori kanpotik hitzez emoziorik gabe helaraztea. Horregatik protagonistei ahotsa ematea erabaki dugu eta preso batzuen kontakizunak gaika laburtuz osatuko dugu podcasta. Kontatzeko haiek baino hoberik ez dago eta.

GOSEA

"Gosea presente zegoen eguneko eta gaueko une guztietan, burutik joaten ez zaizun musika bat bezalako zen, ez genuen beste ezertan pentsatzen. Lanean ari ginenean, kanpamendura begiratzen genuen beti, goitik, errepidetik. Kerik bazegoen, bagenekien janaria bazegoela, eta kerik ez bazegoen, bagenekien beste egun bat jan gabe pasatuko genuela. Batzuetan bi egun botatzen genituen jan gabe, oso luze egiten zen, bi egun egon ginen jan gabe ez dakit zenbat aldiz.

Goizean kolpeka esnatzen gintuzten, garagar infusio batekin katilu bat ematen ziguten, eta harriak txikitzera eta lurra palastatzera bidaltzen gintuzten, etorkizuneko errepidearen lur-erazketa irekitzera. Eguerdiko etenaldian ilaran jartzen gintuzten eta batek salda botatzen zuen eta besteak garbantzuak, sei edo zazpi garbantzu pertsona bakoitzeko, baten bati gehiago tokatzen bazitzaion, partekatu egiten genituen. Hori zen hurrengo egunera arte jaten genuena, eta horrela egunero.

Agintean zeudenek dirua poltsikoratzen zuten eta ez ziguten jaten ematen, guk protesta ezin genuenez egin, ura garbantzuren batekin konformatu behar. Intendentzia-kamioi bat iristen zen bakoitzean, haragi-pernila, azukre-zakuak, kafea... Hori guztia desagertu egiten zen, sukaldera hezurak baino ez ziren iristen. Ofizialek janaria saltzen zuten eta diruarekin geratzen ziren, baina dirua zutenek jan zezakeen, sardinak, ardoa, denetarik... saltzeko etxola bat jarri zuten ofizialek, eta hori ofizialen onurarako, janariarekin geratzen ziren eta, gainera, jan nahi bazenuen, haiei erosi behar zenien. Negozio biribila.

Ahal genuena jaten genuen, txerrientzako patata-onduak, haritz-ezkurrak, behientzako arbiak, baita muskerrak ere. Baserrietako baratzeetara lapurtzera joaten ginen, eta batzuetan gatzarekin tiro egiten ziguten, beste batzuetan utzi egiten gintuzten. Inoiz ez zait ahaztuko lagun batek txakur batekin haragi-hondarrak zituen hezur batengatik borrokatu zuen eguna... Oraindik ere ikusten dut gizona oihuka eta negarrez. Ospitalera eraman zuten zuen borroka horregatik".

OSTATUA

"Hasieran aire zabalean egiten genuen lo, izarpean. Lurrean zuloak egin genituen, adarrez eta hostoz estalita, eta han igarotzen genuen gaua. Urte hartako udazkena oso hotza eta euritsua izan zen, zuloak urez betetzen ziren eta hotzarekin, hezetasunarekin eta lanaren akidurarekin gutako asko gaixotu egin ziren. Ofizialek ikusi zuten horrela ezin genuela lanean behar bezala aritu, eta barrakoi batzuk eraikitzea eskatu zuten. Horrela sortu ziren kanpamentua eta barrakoiak.

Barrakoiak bizi-gaitzak ziren, ez zegoen ez elektrizitaterik ezta urik ere. Zorua lur prentsaturikoa zen eta teilatua txapa metalikozkoa. Lurrean lo egiten genuen, han ez zegoen koltxonetarik, ezta piperrik ere, denak pilatuta, latak sardinak bagina bezala. Ez zegoen ez surik ez ezer, eta han geunden, izoztuta, dardarka, genituen mantekin, elkar kuzkurtuta, arropa jantzita, zorriekin beti. Udan beroa jasanezina zen.

Iturri bateraino jaitsi behar izaten genuen ura edateko eta garbitzeko, ia ez zegoen higienarik, eta ia beti izaten genituen zorriak eta zimitzak. Lagun askok hartu zuten sarna, nik, zorionez, ez.

Kanpamentu horretan 1.100 preso inguru bizi ginen, eta ikusi dudanez, barrakoiak 950 metro karratu zituzten. Pertsonako metro koadro bat baino gutxiagora izaten genuen."

GAIXOTASUNA ETA HERIOTZA

"Zigortuen eremuan, euri, hezetasun eta gosearekin, osasuna okertzen zitzaidan egunetik egunera. Erizaindegira sukar oso altuekin joan behar izan nuen, azkenean tifoideak ziren. Berrogeita bi egun eman nituen bizitza eta heriotzaren artean, han ez baitzegoen antibiotikorik. Hain egoera txarrean ikusi ninduten, non Zumaiako Diziiplina Ospitalera eramatea erabaki baitzuten. Une batean pentsatu zuten hilda nengoela, eta hilotz-biltegira eraman ninduten. Zorionez, ez zen hala izan, eta artean bizi nintzela konturatu zirenean, berriro igo ninduten logelara, eta handik egun batzuetara sukarrak joan ziren.

Nik zortea izan nuen, baina beste askok ez hainbeste. Bata oso ahul zegoen, sarritan konortea galtzen zuen. Hala ere, lanera joanarazten zuten. Egund batean, bere senera itzuli ez zenez, ospitalera eraman zuten eta iristean 38 kilo zituela esan zuten. Biharamunean hil egin zen. Beste batzuk lan-istripuetan hil ziren, adibidez, lur-jausi batek bost lagun harrapatu zituen. Beste hiru istripu batean hil ziren, eta beste asko ere bai.

Aparteko kapitulu bat merezi dute heriotza bortitzek edo niri deitzea gustatzen zaidan bezala, eraiketek. Gogoan dut lagun bat saiatu zela ofizialen kantinatik janaria lapurtzen. Jaso zuen jipoiak heriotza ekarri zion. Ihes egiteko saiakerengatik edo diziplina faltako ekintzengatik ere fusilamenduak izaten ziren. Horrela beste langile asko hil ziren. Zalantzarik gabe, gaixotasuna eta heriotza ere gure egunerokotasunaren parte ziren.”

LAN AKIGARRIA

“Lana oso gogorra zen, baina sarritan neka-neka eginda egoten ginen lantokira iritsi orduko, gutxi eta gaizki lo egiten genuen, ur epela gosaltzen genuen eta lau kilometro egiten genituen kanpamentutik, oinetakorik gabe eta piko eta palak bizkarrean genituela.

Errepidea egiteko, pasabidea garbitu behar genuen, lurra, harriak eta zuhaitzak kendu. Gero, labaindu eta kaxa egin eta harri handiekin bete. Arroka handiak borrekin hausten genituen. Bi edo hiru jartzen zizkizuten, eta bukatu arte lanean egon behar zenuen; lehertuta ateratzen ginen, eta jaten ematen zigutenarekin ez zen nahiko ahalegin horiek egiteko.

Beste egun batzuetan, hondar-zakuak bizkarrean kargatu behar izaten genituen, eta, ezin bagenuen, erori arte jotzen gintuzten. Beste lankide batzuk lehergailuekin ari ziren lanean, inolako segurtasun-neurririk gabe. Ez zegoen ia makinarik, dena guk eskuz egiten genuen, guk doan eta txintik atera gabe eginda zertarako makinetan gastatu?

Akituta ginen. Jardunaldiak astelehenetik larunbatera egiten ziren, goizeko 8etatik arratsaldeko 6ak edo 7ak arte, urtaroak ematen zuen argi naturalaren arabera, batzuetan 8ak arte. Igandetan meza izaten zen eta herrira eramaten gintuzten eskoltatuta, orduan aukera genuen kontakturen bat egiteko bertako herritarrekin. Batzuetan formazio moralerako hitzaldiak ematen zizkiguten, nola izan behar zen ikus genezan eta, nahi izanez gero, erreformatu gintezen. Bisitak baimenduta zeuden, baina praktikan ia inork ez zuen bisitarik jasotzen.”

IHESA

“Diotenez, preso baten betebeharrak nagusia ihes egitea da, eta gure kasuan ia biziraupen kontua ere bazen. Harrapatzen bazintuzten, hil egiten zintuzten, baina kanpamentuan geratuta, hiltzeko aukera handia ere bazegoen. Beraz, asko saiatu

ginen, edo behintzat pentsatu genuen, edo amets egin genuen.

Iheslarien zoria askotarikoa izan zen. Batzuk ihes egin eta ordu edo egun gutxira atxilotu zituzten. Haiek berehala fusilatzen zituzten denen aurrean, besteak beldurtzeko, eredia izan zitezten. Beste batzuen kasuan denbora gehiago behar izan zuten harrapatzeko. Beren herrietara iristea lortzen zuten eta han ezkutuan bizitzen saiatzen ziren, baina ez zuten beti lortzen.

Arrakasta kasu asko izan ziren, alde egin zutenak, eta inoiz ez zen haien berririk izan. Muga oso gertu zegoen, eta handik Mexikora edo beste leku batzuetara joan ziren. Horiek izan ziren zorionekoak. Ihes egiteko beste modu bat landuagoa zen. Lagun batek etengabeko saio epileptiko edukitzearena egin zuen, etxera bidaltzea lortu zuen arte. Besteok, gehienok, ez ginen ausartu eta esklabutzan jarraitu genuen, nahiz eta beti ihesarekin amets egin.”